

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko urtarrilaren 12a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Bera • Gorka Ibargoiien beratarraren lanak irabazi du barandila lehiaketa, eta gaur jasoko du saria

Ana Marin • «Baztango herriek autonomia handiagoa izan beharko lukete proiektuak egiteko»

Lur azpiko aparkalekua Gazteluko plazan



Iruneke kioskorik ezagunena
lur azpiko sarrera baten ondoan
ikusiko dugun eguna geroz eta hurbilago
dago. Ohitzen joan beharko dugu. Izan ere,
iragan urtearen akaberan, Iruneke Udalak
Gazteluko plazan lur azpiko aparkalekua

egiteko proiektua aurkeztu
zuen. Zenbait alderdi politiko alde
dira, beste batzuk, kontra; plazako
dendariak alde, eta Alde Zaharreko auzokideak
kontra. Proiektua onartuz gero, lanak
aurtengo sanferminen ostean hasiko lirarteke.

Iruñea

ITURRALDEKOEK, TASIO AGERRE kidearen hitzetan, pentsatzen zuten historiografia aldetik Nafarroa «egoera latzean» zela. Ikuspegi berria behar omen zen. «Orain arte jaso ditugun iturri inportanteenak izan dira Espainia eta Frantziatik etorritakoak», erran du Agerrek. «Eta horrela historiografiak ematen dute gurearen oso bertsio ezberdina eta interesatua. Gure historiografia martxan jartzeko beharra ikusi genuen. Gure gaiak landu eta aztertu behar dira gure historiografia martxan jarri ahal izateko». Historiografia ez ezik, bestelako gaiak ere jorratzen dituzte Iturraldekoe, hala nola, ondarea edo literatura.

Hori guziori lortze aldera, Iturraldek hainbat ekimen abiatu ditu urteotan. Urtero hitzaldi zikloa antolatzen dute «ikuspegi berri horretatik hainbat arlotan mugitzen diren pertsonen lana eta mezua» ezagutarazteko. Aurtengo ikasturtea iragan abenduaren 22an hasi zuten. Orduan, Lartaun Egibar Zuzenbidearen Historiako irakasleak Nafarroako legeriak botere politikoari ezartzen dizkion mugez aritu zen.

Hurrengo hitzaldia gaur bertan izanen da. Nabarrerria kultura zentroan, 19:30ean, Joxemiel Bidador filologoak Nafarroako euskal idazleez hitz egingen du. Bidadorren hitzaldiaren ostean eztabaida irekia izanen da. Agerrek azaldu duenez, hitzaldietan sortzen den eztabaida «oso aberatsa» da. «Izan ere, Iturralde eztabaidatzeko topagunea da».

Hitzaldi zikloaz gain, Iturraldek Nafarroako kulturaren eta historiaren gaineko astea antolatu ohi du ekain aldera. «Aurtengo guti gorabehera lotua dugu», dio Agerrek. «Eta bertze aldetik, gure neurrian, bultzada eman



Joxemiel Bidador fillogoa Nafarroako euskal idazleez arituko da gaur, 19:30ean, Nabarrerria zentroan, Iturralde elkartearen hitzaldi zikloaren baitan. ● CRISTINA BERRAIN

Eztabaidatzeko topagunea

Joxemiel Bidador Nafarroako euskal idazleez solastatuko da gaur Iturralde elkartearen zikloan

Iturralde azterlan eta ekimenetarako elkarte duela zortzi bat urte sortu zuten hainbat esparrutako pertsonak, «eztabaidatzeko topagunea» izatearren. Historiografia lantzen dute batez ere, baina bestelako gaiak ere badituzte eztabaidagai.

diogu hainbat libururen argitaratzeari. Hala nola Tomas Urzainkiren *La Navarra marítima* eta Mikel Soraurenen *Navarra. El Estado vasco*. Bultzada eman diegu eta, gure ustez, oso arrakastatsuak izan dira. Ildo horretatik jarraitzeko asmoa dugu».

Iturraldek antolatu zikloaren hurrengo hitzaldiak ondokoak izanen dira: Victor Moreno idazleak, *Diario de Navarra: estabilidad ideológica* (otsailak 16); Joseba Ariznabarreta irakasleak, *Crisis del Estado: renovación o desaparición* (martxoak 16); To-

mas Urzainki abokatuak, *Nuevas o viejas tensiones entre los Estados europeos* (apirilak 27); Koldo Martinez Garate ingeniariak, *Patrimonio, ¿un concepto en crisis?* (maiatzak 11).

→ Asier Azpilikueta

Aezkoa

Eskualde osorako igerilekua egiten saiatuko dira

Astearte gauean Aezkoa Iba-xako batzarra egin zuten igerilekuaren inguruan eztabaidatzeko. Batzarra egitea Aetzak taldeak eskatu zuen, 350 sinadura baino gehiago lortu eta gero. Aribeko Juntetxeak gainezka egin zuen, igerilekuaren afera bizilagunen interes handikoa baita.

Batzordeko lehendakari eta Mendilatz taldeko kide Martin Arostegik igerilekuaren gaineko historia egin zuen. Arostegik adierazi zuenez, hainbat bilera egin ziren inguruko udalekin igerilekuaz hitz egiteko. Bere erranetan, udalek «babes moral» eman zioten Batzordeari, baina batere dirurik ez, eta horregatik, Aezkoako Batzordeak erabaki zuen igerilekua Batzordeak soilik egitea eta ordaintzea.

Igerilekua eraikitzekeo estudioa egin duen Idra enpresako bi kidek esplikatu zuten lorturiko datuen arabera igerilekua Ariben egin beharko litzatekeela. Oposizioan dagoen Aetzak taldearen ustez, ordea, Idra enpresaren datuak okerrak dira.


Astearteko batzarrean jende anitzek parte hartu zuen.

Bilera gaueko bederatzi-tan hasi eta hamabiak aldera bukatu zen. Batzarrean bukaeran, Martin Arostegi lehendakariak erabaki zuen beste bilkura baterako deia egitea. Auritz, Orreaga, Luzaide, Oroz-Betelu, Erroibar eta Artzibarko udalei deitu eta udal guzien diru laguntza izanen duen eskualdeko igerileku baterako proiektua adosten saiatuko dela adierazi zuen.

→ Asier Azpilikueta

ziutatea

ARITZ AGIRRE



Milurtekoaren tragikomedia

Giltzurrunak ronez gainezka egin bezain pronto erabaki nuen XX. mendea agurtu eta etxerako bidea hartzea. Orduan, hain zuzen, milurteko berriak jada bederatzi ordu zituenean jaio zen zutabe hau: borroka latza kausitu genuen Sarasate pasealekuan, bi biren aurka. Batak besteari hamar muturreko oparitu zizkion buruan. Beste biek bultzaka ziharduten, ahuntzek egin ohi duten gisara. Baina, filmetan ez bezala, garaiena izan zen txapelduna, idien artean astoena. Bere bi aurkariak lurtean zeudenean ostikadak eman zizkien ahoan, begian eta masailazurrean, inpunitate osoz. Konortea galdu zutenean ere, bularra eta burua zapaldu zizkien, arnoa egiteko mahatsa balira bezala. Harro aldegain zuen bertatik, oinez, «nire anaia inork ez

du ukitzen» esanez. Kontzientzia beroa lasaitzeko hitzak nonbait, berreroa bere buruan heroi irudikatzeko.

Tragikomedia, Urtezahararen bestondoa izaki egoera horren aurrean denak moztarotuta ginelako. Aitonaz jantzita, burusoil-bizar zuri eta guzti joan nintzen udaltzainarengana, gertatutakoaren berri ematera. Nirekin batera, Obelix, india bat, Tamara eta Mortadelo. Denak arduratuta eta serio. Behi eroak deitu zion anbulantziari, eta matxinsalto batek laguntza eskaini zien lurtean zeudenei, aurpegia berdez tintatua eduki arren erizaina ere bazelako.


Errepide erdian zeuden biak: bata, graziarik gabeko pailazoz jantzita, bi hortz galduta, begian ubeldura, sudurretik odola zeriola. Bigarrena, Konanen moztarroarekin,

gudan galtzaile, begia odoletan, masaila puztuta. Nerbioak jota, liskarrean baretze lanak egiteagatik muturrekoa doan erdietsi zuen txanogorritxua (lurrean zegoenaren neska-laguna). Gertatutakoaz jabetzeko, sorgina, Aznar, Txarlot, animatzaile hanka ileduna, Superman, emagaldutako bizarduna eta moja hurbildu ziren. Denak etilik.

Ospitalera joan beharrean, erasotzailearen bila jo nahi zuten jipoitutakoek. Eta giro horretan hasi genuen XXI. mendea. Autokritika? Kolpeka ekin diogula urte berriari ere. Ditugun arazoaren artean modako patinete horretan irrigan, ez erortzeko orekak eginez. Bakoitza bere bidetik, inori bidea eman gabe, kolpea besteari eman nahian norberak hartu aurretik. Hots, tragikomedia guzietan bezala. Komedia baino gehiago, tragedia.

Bera ●

Stylos barandila karriketara



Ibargoieneen Stylos barandilak «Berako herriarekin muga egiten duten zazpi herriak irudikatzen ditu marra bihurtuen bidez». ● GORKA IBARGOIE

Gorka Ibargoieneen beratarraren lanak irabazi du lehiaketa, eta gaur jasoko du saria

Berako Udalak antolatutako barandila lehiaketan, Gorka Ibargoiene 26 urteko beratarrak jaso du lehenbiziko saria. 19:00etan, Kultur Etxean egingen da sari banaketa, eta urtarrilaren 20a bitarte lehiaketara aurkeztutako lanak ikusi ahal izanen dira erakusketa batean.

KARRIKETAN BARNA PARATU beharreko barandila bat diseinatzeke lehiaketa deialdia egin zuen Berako Udalak joan den udazkenean. Denetara 31 lan aurkeztu ziren, eta, epaimahaiaren iritziz, Gorka Ibargoiene 26 urteko beratarraren Stylos lana izan da onena —grekeraz zutabea erran nahi du Stylosek—. 200.000 pezetako saria jasoko du Ibargoiene lan saritu horrekin. Erabat diseinu berritzailea aurkeztu zuen Ibargoiene. «Berako herriarekin muga egiten

duten zazpi herriak irudikatzen ditu barandila honek, marra bihurtuen bidez», azaldu du Ibargoiene. Barandilaren zutabeen goiko aldean, berriz, Berako armaria ageri da, erliebean egin.

Gorka Ibargoiene diseinu industrialeko diplomaduna da, eta egun Berako lantegi batean dihardu lanean, diseinatzaile. Mota honetako lehenbiziko lan saritua du, eta «izugarritzko ilusioa» egin diola aitortu du. Bere diseinuan, gainera, barandila ez

ezik, bertzelako osagai batzuetarako proposamenak egin ditu Ibargoiene: paper ontzietarako zutabeak, oinezko eremuak mugatzeko piboteak eta autoek aparkatzea saihesteko zutabe tikiago batzuk ere. Poliki-poliki joanen dira Berako karriketan barrena barandila berria paratzen, zahartuak aldatu ahala. Lehenbizikoa, seguruenik ere, Ilekuetan joanen da, Zelaia base-riaren parean moldatzekoa den zutabea.

Aurkeztutako 31 lanen artean,

hala ere, hiru sari eman zituen epaimahaiak. Bigarren saria ere Beran bertan gelditu zen, Mikel Telletxea 25 urteko gazteak egindako *San Miguel eta Bidasoa*, herri osoan lanarekin. Berako zubi ezagun horretan inspiratutako diseinua zen Mikel Telletxearena. Barne dekorazioko diplomaduna da Telletxea, eta beretzat ere gisa honetako lehen saria da. «Irabazi ez arren, hagitx kontent» agertu da. Ordainetan, 30.000 pezeta jasoko ditu. Hirugarren saria, aldiz, Ruben Sanchez irundarrarentzat izan da; izokinetan oinarritutako lana egin du. Beraren eta batez ere Bidasoaren ezaugarri nabarmenenetakoa den hori hartu zuen oinarri bere lanerako irundar gazteak. 20.000 pezeta irabaziko ditu hirugarren sari horren truke.

Hiru lan sarituak ez ezik, lehiaketara aurkeztutako gainerako guztiak ere ikusi ahal izanen dira datorren larunbata bitarte, hilak 20, Berako Kultur Etxean, astelehenetik larunbatera, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

→ Jon Abril

herri aldizkariak
Eduarne Elizondo

Etxabeak, gazteentzako alternatiba

Azken urteotan Euskal Herriko herrietan gero eta maizago gertatzen ari den fenomenoaren berri ekarri du Burlatako **Axular** aldizkariak 2000-2001 neguko alean. Aldizkariak esaten duenez, «gazteak bere aisialdia nahi duen moduan antolatzeke aukera izan beharko luke eta ez orain bezala haien zatitza antolatzen dena haiekin kontatu gabe egiten dela». Horrela, gazteentzako leku eta alternatiben faltatik sortu da aldizkarian aztertutako etxabeen fenomeno. «Burlatako Udalak Gazte-
txea itxiarazi zuenetik esan daiteke une

horretan zegoen aukera bakarrarekin bukatu zuela», eta horrela gazteek beren esku zeuden aukerak aztertu ondoren batzuk etxabeak alokatzerantz animatu ziren.

Axular aldizkariak esaten duenez, gazteek nahiago izaten dute euren aisialdia euren kabuz etxabeetan antolatu, eta horrela, gero eta etxabe gehiago atondu dituzte Burlata eta beste hainbat herrian. Etxabe hauetan 10 eta 15 kide inguru biltzen dira, haiek ordaintzen dute kuota eta bertako giltza izaten dute. «Baina gero 30 eta 40 lagun inguru biltzen dira etxabee-

tan; gehienetan izaten dira ezinbestekoak telebista eta bideoa, sofak eta eserlekuak, eta gero, adina eta egoera ekonomikoaren arabera, beste gauza batzuk izan daitetzke, adibidez komuna, musika taldeen-
tzako entseatzeko gela, freskagarrien makina, jokugela txikia...». Etxabeek gutxienezko antolakuntza behar dute, eta diru kontuak eta bizilagunekiko harremanak zaindu behar dira bereziki. Horrela leku faltari aurre egin diote gazteek, «ezin direlako gauzak norbaitentzat antolatu norbait horrekin kontatu gabe».



ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

Etnologia. 2042. urtea

(Aspaldiko teknologiaz, On Xabier Larrabururekin. 78 urteko euskalduna. Iruñean eman du bere bizitza guztia. Jakan paratua Otegi VI.a lehendakariak emandako urrezko domina darma. Nahiko gorra dago, traketomiaren anplifikadoretik ari zait).

- On Xabier, hasiko gara beraz, nola esaten zenioten Playstationi?

- Barkatu?

- Ea nola esaten zenioten Playstationi?!!

- Bada, Plaiestation!

- Eta Sareari?

- Beno, guk esaten genion Internet.

Esate baterako: Interneten aurkitu dut edo Interneten dago. Gainera, gogoan dut imailak bidaltzen genituela eta...

- Barkatu, zer ziren imailak?

- Mezuak bidaltzeko, gizona! VideoLetters, baina idatzia, eta jajaja, helbidea jartzeko paratzen genion ikur bat horrelakoa (eskuarekin airean zer edo zer borobila marraztu du), horrela; arroba esaten genion.

- Ok. Eta cyberFashion-i, nola esaten zenioten?

- Uiiiiiii, nire garaian ez zegoen horrelakorik! Uuu! Ez ez! Nire garaian horrelakoei pornoa deitzen genion, eta ez zegoen onarturik; uuuuu! Jajaja, ez, ez!

- Porno?

- Bai! Orain TeleNewsetan agertzen ari den hori, buuuu! Orduan ez, ez, ez! Orduan pornoa zen hori! Jajaja.

- Elizak galarazten al zuen?

- Beno, bai, baina oro har zegoen galarazita! Bai, bai! Uuuu! Jajaja! Oraingoak! Oraingoak ezta pentsatu ere!

- Orduan, zertarako erabiltzen zenuten Sarea?

- Beno, ba, imailak bidaltzeko.

- Bai hori kontatu duzu, baina besterik?

- Eeee, beno, gauza asko zeuden Interneten, ez dakit ba.

- Baina lehenbiziko garai haietan ere CyberFashion edo pornoa egonen zen, ezta?

- Nik, ejem, ez dut ezagutu, ez, ez; ez dut gogoan, ez. Iep! Aaax! Meka!

(Bere emaztea salan sartzen ari zen memento berean On Xabierri anplifikadore lurrera erori eta, ustekabea, oinarekin zanpatu eta puskatu du. Bat-batean mutu gelditu zaigu. Eskuekin elkarriketarekin segitzeko prest dagoela adierazten didala iruditzen bazait ere, bertan behera utzi beharko dugu. Ohartxoa: emazteak, oraindik ere!, pantailan zegoen TeleNewsa begirada gaiztoz behatu duela iruditzen zait.) ●

Autoak Iruñeko bihotzaren azpian

Gazteluko plazan lur azpiko aparkalekua egiten hasiko dira sanferminen ostean

Iruñeko Udalak Gazteluko plazan lur azpiko aparkalekua egiteko proiektua aurkeztu du. Zenbait alderdi politiko alde agertu dira, beste batzuk, kontra; Alde Zaharreko merkatariaik alde, eta auzokideak kontra. Aparkalekuak eta ingurua oinezkoentzat bakarrik izateak goitik behera aldatuko dute Gazteluko plazako itxura.

GAZTELU PLAZAKO LUR AZPIKO APARKALEKUAREN oinarritzko proiektua iragan abenduaren 27an aurkeztu zuten. Proiektu horren arabera, Iruñearen sinbolo den enparantzaren azpian 600 plazako aparkalekua eraikiko dute, bi solairutan banatuta. Lur gaineko ingurua oinezkoentzat bakarrik izanen da; zerbitzuetako ibilgailuak soilik pasatu ahaliko dira Gazteluko plazatik.

Lur azpiko aparkalekua egiteko lanak, us-tez, aurtengo sanferminen ostean hasiko dituzte. «Espero dugu 2002ko sanferminetarako plazatik iragateko batere arazorik ez egotea, nahiz eta aparkalekua oraindik bukatu-rik ez egon,», adierazi zuen Yolanda Barcina alkateak aurkezpenean. Egingen dituzten 600 plaza horietatik erdiak auzokide-ndako gordeko dituztela erran dute. Baina %50 horietatik %10 inguruan dendak edo bulegoak dituztenendako izanen dira, eta beste %10, Udalarendako. Plaza bakoitza hiru milioi pezeta kostatuko denez, Udalak adierazi du %40 eta %60 bitarteko dirulaguntzak emanen dituela.

Erabat aldatuko da plazaren itxura

Lur gainekoaren itxurari dagokionez, proiektuaren arabera, kioskoa dagoen lekuan utziko dute, eta zuhaitz gutiago izanen dira. Gainera, zuhaitzak tamaina txiki-koak izanen dira. Plazan bertan ez da aparkaleku-
ra autoz sartzeko sarrerarik egonen. Sarrera horiek Karlos III.a. Ahumadako dukea eta San Ignazio karriketan izanen dira. Plazan oinezkoentzako sarrerak izanen dira. Proiektuaren aurkezpenean adierazi zute-
nez, Karlos III.a hiribideak duen itxura har-
tuko du Gazteluko plazak; izan ere, orain hi-
ribide hori oinezkoentzat bakarrik da.

Lan horien guztien eragina nabaritu-
ko duten lehenak merkatariaik eta auzokideak di-
ra. Alde Zaharreko Merkatarien Elkartek adierazi duenez, «hagitz ongi» hartu dute proiektua, eta alde daudela diote, Alde Za-
harrean beste hainbat aparkaleku egitearen alde dauden moduan. Hala ere, aurreikusitako 600 plazak baino gehiago egin behar di-
rela uste dute, «900 bat, eta beste solairu bat

egin, hirugarrena». Era berean, Udalari es-
katu diote aparkalekuen prezioa jaisteko
ahalegina egiteko.

Auzokideek, berriz, ez dute horren ongi
hartu Gazteluko plazako lur azpiko aparka-
lekuen proiektua. Gauza jakina da Iruñe-
ko erdialdean arrunt zaila dela aparkatzea.
Are zailagoa dute auzokideek eta, horrega-
tik, azken hilabeteotan aparkalekuak ugalt-
zeko mobilizazioak egin dituzte. Gainera,
Alde Zaharreko karrikak eta plazak oinezko-
entzat bakarrik izan daitezten adostasuna
dago. Eta, halarik ere, Alde Zaharreko auzo
elkartea Gazteluko plazako aparkalekuen
kontra agertu da. Zergatik?

Aurkakoen arrazoiak

Lehenik, plazaren egungo itxura aldatzea-
ren kontra dira. Enparantzaren 121
zuhaitz, lurzoruko marrazkiak eta kioskoa
bere horretan mantentzea nahi dute. Bigar-
renik, «premiakoa ez den gauza batean»
gastatuko den dirutza izugarri handia dela
uste dute (2.500 milioi pezetako inbertsioa).
Hirugarrenik, lur azpiko aparkalekuak egite-
ko hori baino toki aproposagoak badirela
uste dute, «auzoaren bazterretan, etxebizi-
tzetatik hurbil». Laugarrenik, auzo elkar-
tekoen aburuz, ez dira lur azpiko aparkaleku
gehiago behar lehendik daudenetan okupa-
zio indizeak handitzen ez badira. Egun, Kar-
los III.a hiribideko aparkalekuaren %30a
dago beteta, Aduanaren Txokokoaren
%40a eta zezen-plazakoaren %60a. Gaine-
ra, Baluarte auditorioan egiten ari direnak
900 plaza izanen ditu. Eta, azkenik, auzoki-
deen iritziak plazak oso garestiak izanen dira.

Hori dela eta, Auzo Elkartek eskatu du
proiektuaren onartzea atzeratzea. Atzoko
Udaleko osoko bilkuraren gai zerrendaren
laugarren puntua zen Gazteluko plazako
aparkalekuarena. Lerrook osoko bilkuraren
emaizta jakin aurretik idatziak dira.

→ Asier Azpilikueta



Proiektua ez zen 1973an onartu

Alde Zaharreko karrikak astelehenean eman
prentsaurerako! Angel Muezek gogorazi
zuen 1973an, lotzi zela, atzera bota zutela
Gaztelu plazako aparkalekua egiteko proiektua.
Egitura fra Udal hartan, hainak zinego-
tzik proiektuan egin zuten eta beste seik alde
(alkatea, hiru eta gero UPNren inguruan
ibiliko ziren proiektua atzera botatzen la-
gundu zuen Udako ingeniariak kontrako
txostena idatzi da hiri baten itxura orokorra

edo partikularra kolokan jarri ibilgailu zirkulazioaren
eskaeraren arabera. Hiriaren plazarik adierazgarriena
ere ezin da koloka jarri 400 erabiltzaileentzako lur az-
piko gela batengatik. Gizakia lur gaineko izakia da, eta
ezin du sakrifikatu hiriarendako berebiziko garrantzia
duen lurrazala ibilgailuendako, eta ez pertsonendako
artifizio espazioak egiteko ere».

Muezek astelehenean adierazi zuenez, «Iruñeko
herriak merezi du Gazteluko plazak hiriaren ikur iza-
ten jarraitzea eta, batez ere, zuhaitzak mantenduz».



Alde Zaharreko karrikak astelehenean eman prentsaurerako! Angel Muezek gogorazi zuen 1973an, lotzi zela, atzera bota zutela Gaztelu plazako aparkalekua egiteko proiektua. Egitura fra Udal hartan, hainak zinego-tzik proiektuan egin zuten eta beste seik alde (alkatea, hiru eta gero UPNren inguruan ibiliko ziren proiektua atzera botatzen lagundu zuen Udako ingeniariak kontrako txostena idatzi da hiri baten itxura orokorra

erreakzioak

EH

«Proiektuak auzokideak baztertzen ditu»

► «Aurkeztu duten proiektuak ez du batere justifikaziorik, irudi operazio bati erantzuten dio eta kaltegarria izan daiteke. Proiektua Barne Erreformatarako Plan Bereziaren kontrako da. Plan horren lehenetsunetan seigarren postuan zegoen Gazteluko plazako aparkalekua, eta orain lehena paratu dute. Bestetik, orain arteko lur azpiko aparkalekuetako errotazio indize txikiak ez dute erakusten plaza gehiago behar direnik. Proiektuak auzokideak baztertzen ditu, eta peatonalizazioarekin bizilagunen aparkatzeko beharrei erantzuten ez bazaio, akaso hauek peatonalizazioaren beraren kontra agertuko dira. Gainera, hondar arkeologiko garrantzitsuak eta plazako zuhaitzak suntsituko litateke. Proiektua gelditu behar da, erakus-keta publiko luzea zabaldu eta erreferenduma egin».

PSN

«Iruñeko erdialdean beharrezkoak dira aparkalekuak»

► «Ziur gara lur azpiko aparkaleku honen aurkakoak Sarasate pasealekurako eta Carlos III etorbiderako proposatu ziren aparkaleku proiektuen aurkakoak berak direla. PSNk uste du ezin zaiola denborari hesirik paratu. Jendeak bere autoa hiriaren erdigunean aparkatu nahi du. Horregatik, PSNren udal taldea kontu hau aztertzen ari da. Hautsak harrotu dituztenek oso argi jakin beharko lukete guk ulertzen dugula badagoela Iruñerriko eta eskualdeko kanpoko jende asko Iruñeko erdialdean lan egitera datorrena; eta hauek ez dute erabili nahi Tafa-llatik Iruñerriaren erabiltzen duten denbora bera aparkalekutik erdialdean joateko. Hortaz, Iruñeko erdialdean beharrezkoak dira aparkalekuak, nahiz eta, akaso, bere kokapena zehaztu eta proposamen gehiago aztertu behar diren».

IU

«Ez da premiazkoa Gazteluko plazan aparkaleku berria egitea»

► «UPNren Gobernu taldearen jarrera salatatzeko modukoa da, hiriaren planifikazioa orde-
katu dutelako mementoko erabakien politikarekin. Erabaki horiek ez daude hiri eredu baten
baitan, epe motzeko arrazoi politiko eta ekonomikoen baitan baizik. Auzokideentzako apa-
kalekuak eraikitzeari lehentasuna eman behar zaio, eta, bide batez, laguntza ekonomikoak
eman behar dira ahalmen ekonomiko txikiarekin bizilagunek aparkalekuak lortzeko aukera
izan dezaten. Era berean, Alde Zaharreko inguruetan errotazio aparkalekuak egin behar di-
rela uste dugu, bere peatonalizazio progresiboa gauza dadin. Hori dela eta, une honetan ez
da premiazkoa Gazteluko plazan aparkaleku berria egitea. Gainera, proiektaturiko aparka-
leku horrek ez ditu auzokideen beharrak asetzen, eta ez da konponbiderik onena errotazio
aparkalekuetarako, ezta trafikoaren ordenaziorako ere. Edozein erabaki hartu baino lehen,
eztabaida zabalda gizarteratu behar da, eta herri kontsulta egin».

Batzarre

«Aurreikusitakoa eginez gero, ez dago aparkaleku eskasiarik»

► «Herriarrek euren iritzia eman beharko lukete tamaina honetako kontuan, ekintza handia
baita, diru asko eskatzen duena. Herri kontsulta egin behar da. Baina kontsulta egin aurre-
tik, auzokideei dugu garrantzia eman behar zaizkie. Gaztelu plazako aparkalekuan 600 plaza
behar direla erraten duen estudioak ez du fundamenturik, errealitatea desitxuratu du eta
interesatua da. Bere garaian komentatu genuen sinesgarritasun gutikoa zela proiektua egin
behar zutenek estudioa ere egitea. Hainbeste plaza behar zirela erakusteko interesatuenak
ziren, horren arabera izanen baitzen proiektua eta lortuko zuten diru kopurua. Guk uste
dugu Alde Zaharrean ez dagoela aparkatzeko lekuen eskasiarik, baldin eta aurreikusirik
zeuden aparkalekuak egiten badira (Compañía, Artzapezpikutza, Labrit, Aldapa, Redin,
Santa Ana, Recoletas eta O-ko Andre Maria)».



Egin asmo duten proiektuak erabat aldatuko du Iruñeko bihotzaren itxura. Autoak eta zuhaitz handiak desagertuko dira. Kioskoak bere horretan segituko duela erran dute. ● MIKEL SAIZ



Iruñeko autobus geltokia zaharkiturik dago. • MIKEL SAIZ

Iruñeko beste euskal idazle bat: Pablo Artxanko

Heldu den astelehenean Pablo Artxanko jaio zeneko 109. urteurrena beteko da; euskaltzale porrokatua, mugimendu abertzaleak pasa den mendean Nafarroan izan duen pertsonaiarik aipagarrienetakoa dugu; 36ko gerratean Argentinara hanka egin behar izan zuen, eta handik itzuli ez zirenetakoa dugu; euskaldun berria izanki, euskal idazlea ere baguenen, Tellagorrik eta Irujok Buenos Airesen argitaratu zuten *Tierra Vasca* hartan bereziki.



Artxankoren izena euskal idazleen gaineko hiru bilduma garrantzitsutan behinik behin badugu jasoa: San Martinen *Escritores euskéricosen*, Onaindiak ondu *Euskal Literaturaren* laugarren alekian eta Añamendikoek beren entziklopediaren gehigarri gisa prestatu *Literaturaren* hirugarren liburukian. Gutxi da, haatik, sarrera hauetan Iruñekoaz eskaintzen zaiguna. Are zailago da, gainera, Artxankok berak eginiko euskal idazkirik topatzea. Alde batetik, zinez gutxi izan baita Artxankok izkiriaturik utzi ziguna, eta euskaraz are gutxiago, eta bestaldetik ere, zaila baita Artxankoren lanak aterbetu zituen *Tierra Vasca* aldizkaria orrikatzea.

Pablo Artxanko Zubiri, bere ezagunek Paul deitzen zutena, Iruñean jaio zen, 1892ko urtarilaren 15ean. Nekazari ingeniari-tza ikasi ondoren, Iruñeko San Jose Plaza eta Redin pasealekuaren ondoan oraino umilki altzatzen den Nafarroako Nekazari Eskolan jardun zuen irakasle, hiriak ahanziago duen bigarren sekuoiaren gerizpean. Gazte-gazte-tandik zuen Artxankok izena EAJn emanda. Esaterako, Mugimendu jeltzaleak 20ko hamarkadan nozitu zuen CNVren eta PNVren arteko banaketarekin bukatzeko Bergaran 1930eko azaroaren 16an egin zen batzarrera joan ziren nafarren artean Pablo Artxanko bazegoen. Halaz guztiz ere, mendearen hirugarren hamarkadarekin batera EAJn berri ere gertatu zen bana-

ketan, Artxanko ANV berriarekin lerratu zen. Alderdi berria Iruñean 1933an eratu zen, eta bere aldarrikapenen artean honako hauek zeuden: Euskal Herriko batasuna EAJren federalismoaren aurka, errepublikaren defentsa, liberalismoa eta akonfesionaltasuna. Ezagun denez, Nafarroan indar eskasagoa izan zuen ANVren aukera politikoak, eta horrek ilaundu zuen hala edo nola Artxankoren ekarpena.

ANVek Nafarroan ordezkari-tza handirik ez bazuen ere, Artxankok ezin izan zuen 36ko basakeriatik libratu. Gerratearen lehenbiziko egunetan atxilotu eta giltzapean mantendu zuten Artxanko Iruñean bertan. Halako batean ihes egiteko izan zuen aukeraren bat probestuz hanka egin zigun, eta mugako arriskuak kostata saihestuz, Iparraldera iritsi zen. Artxankoren bizitza berriak Baionan izan zuen hasiera, Euskal Institutuko irakasle



moduan, alabaina euskal delegazioa osatzen zuten Aldasoro, Conchillos eta Lopez-Mendizabalekin batera 1938an Buenos Airesera aldatu zen, eta hantxe geratu zen betiko.

Buenos Airesen zeuden ANVko erbesteratu zenbaitek gerra aurretik alderdiak jada argitaratzen zuten *Tierra Vasca* argitalpena berri ere plazaratzea erabaki zuten. Urte haietan Peronen agintegoa erori eta Aramburu jeneralak ezarri zuen bere erregimena, eta ironikoa izan arren, horrek ahalbidetu zuen bereziki euskaltzaleen ekimena. Hilabetekari berria 1956ko uztailaren 1era zen lehenengo aldiz, aurrekoan bezala, Jose Olivares Larrondo *Tellagorrik* zuzendurik. Tellagorri 1960an zendu zenean, aldizkariaren zuzendaritza Pello Mari Irujoren eskutan geratu zen argitalpena guztiz desagertu arte. Aurrekoan bezala, Buenos Airesen in-

primatzen zen honetan euskarazko orria ere bazegoen. Lehenbiziko lau zenbakietan zutabe soil batzuk baizik ez ziren ageri, baina bosgarren zenbakitik aitzina *Euskara* izenburua zuen orria kaleratzen hasi zen, komunzki seigarren orrialdea zena. Kolaboratzaile ugari zuen orrialde honen kudeaketa Artxankoren lana izan zen, eta bere kolaborazioen artean euskara ikasteko aldikako metodoa azpimarratu beharko litzateke, seguruenik ere, Buenos Airesko Laurak Bat elkartearen Lopez-Mendizabal eta Biterirekin batera ematen zituen euskara eskolatan praktikan jarriko zuena.

Baztertuen parada

Iruñean autobusa hartzerakoan erne demonio ibili beharra dago. Roncalesak Erronkarira baino lehenago Donostiara eramane zaitu. Tafallako bidea hartu ordez, Izaba du helmugatzat Tafallesak. La Veloz Sangüesinarekin berandu iritsiko zara Zangozara.

Oliveto kondearen kalean eraiki zuen 1934. urtean Alzugarai arkitektoak autobus geltokia. Zaharra, utzia, ziikina, iluna, abandonatua. Horixe da bere egungo egoera. Bertako langile baten irudiko, «kalean baino hotz gehiago egiten du hemen barruan».

Jende asko ibiltzen da egunero joan-etorrian. Goizetan inguruko herri eta hirietara lanera doazen lagunak. Astelehenean eta ostiraletan ikasleak dira nagusi. Hilaren batean eta hamabostean IMSERSOKo jubilatuek biltzen dira bertan. Beste bidaiari klase bat ere nabarmentzen ari da azkenaldian gure lagunaren esanetan. «Gero eta etorkin gehiago iristen dira. Lehen beltzak ziren nagusi, orain, berriz, Ekuador, Peru eta Kolonbiatik datoz bereziki. Autobusetik jaitsi bezain pronto, hantxe bertan kontratatzen dituzte enpresariak eraikuntzan eta nekazaritzan lanean aritzeko».

Zenbaitetan, autobusak berandu iristen dira. Zain egoitea egokitzen bazaizu, fotomatonetan argazkiak atera ditzakezu. Edo garai bateko baskula erraldoian jar zaitez-

ke. Horretaz gain, tabakoa, loteria, prentsa, edariak edo goxokiak erosteko aukera daukazu bertako kioskoetan. Bestela ere, baduzu zertan paratu zure begirada esperotan zauden bitartean. Gelto-kian lagun asko dabil noraezean gora eta behera.

Hainbat, iparra galduta bezala; beste batzuk, helburu zehatz batekin harat-hunat miaketan. Guztiak ere bakar-dadea uxatu nahian. Gizarteak bazterrean utzitakoen eta euren burua baztertzen dutenen topalekua da. Drogazaleak diru eskean ikusten dira bidaiarien artean. Mozkorrak lotan edo beren buruarekin hizketan. Kaleko musikariak ere sarritan azaltzen dira aterpean jotzera. *La Farola* aldizkariaren saltzaileak hantxe egoten dira beti. Jende pilaketa besteen diru-zorroak lapurtzeko aprobetxatzen duenik ere bada. Bestetik, noizbehinka, komunaren inguruan, prostituzioan dihardu zenbaitek.

Horrenbestez, ez dago aspertzeko betarik goizeko seietan zabaltu eta gaueko hamarretan ixten duten Iruñeko autobus geltokian. Eraikuntzak baino gehiago, orubeak du benetako balioa. Hori dela eta, agintariek ez dute zaharberritu nahi. Etxabakoitzen berria egiteko asmoa bertan behera gelditu zen duela zenbait urte. Azken proiektuaren arabera, geltoki berria lurpekoa izanen da, eta Yanguas Miranda kalean eraikiko dute.

Ziria

• Motxorrosolo •

Añamendiren trinkotzea

Milurtekoa ezagutu du mutildantzariak. Añamenditik edan zuen, egun, zenbait testuren aitzin oldartu direnen gisan. Izabarrena denendako eredu izan baita. Trinkotzea ezagutu zaio esparru politikoari, alta kultur eremua da oraingo eraso gehienen jomuga. Antidemo-ak ez dira mentsu.

Ana Marin

ELIZONDOKO ALKATE JURADOGAIA

«Herriek autonomia handiagoa behar lukete proiektuak egiteko»

ANA MARIN 1975-76 ETA 1995-96an izan zen Elizondoko alkate jurado. Errege egunean egin zen batzarrean, Tasio Nagore alkate juradoari bere burua eskaini zion kargua hartzeko.

■ Noiz erabaki zenuen berriro Elizondoko alkatesa izan nahi zenuela?

Beti barnean daramat ideia hau; Elizondori eta ibarrari orokorrean ahal dudana eskaini nahi diot, eta entzun nuenean alkate juradorik ez zela egongo Elizondon, neure burua eskaini nuen. Hala ere, lehenik Tasio Nagore alkateari Gabon gaueko batzarrera ez nintzela agertuko esan nion, ez nuen inplikatu nahi. Berekoia dirudi, ezta? Halere, ibarrari diodan maitasunak bultzatuta eta baita Batzar Orokorraren muina ez galtzearen, hirugarren aldiz alkatesa juradoa izango naiz. Ibarraren administrazio modua egon daitekeen demokratikoa da, herriak egiten du herriarentzat. Ez dut ulertzen nola herritarrek ez duten euren harrotasuna ateratzen eta



Elizondo izugarri maite du Ana Marin margolariak. Hau dela eta, herriko alkate jurado izateko hautagairik ez zegoela ikusita, bere burua aurkeztea erabaki zuen. Ilusio handiarekin, bere hirugarren agintaldia hasiko du laster.

Baztango alkate juradoak

Almandoz: Severiano Landak berriro hartuko du kargua.

Amaiur: Beñardo Amianok jarraituko du.

Aniz: Marzelino Rementegik karguan jarraituko du.

Arizkun: Alkate juradorik gabe dago oraingoz.

Arraioz: Alkate juradorik gabe daude han ere.

Azpilkueta: Fermin Barazabalek kargua utzi eta Juan Irungaraik hartuko du.

Berroeta: Lorenzo Maritorenak jarraituko du.

Elizondo: Ana Marinek kargua hartuko du Anastasio Nagorek utzi ondoren.

Erratzu: Santiago Ibargaraik jarraituko du karguan.

Elbete: Patxi Ameztoti zen alkatea eta hurrengo bi urteetarako Patxiko Burgete izanen da.

Garzain: Jose Maria Ursutegi izanen da alkate berria Patxi Peñak utzi ondoren.

Irurita: Maribel San Jose izanen da hirugarren agintaldiz jarraian alkatesa.

Oronoz: Florentino Goñi bosgarren aldiz alkate izanen da.

Ziga: Francisco Javier Etxenike berriro izanen da alkate jurado.

daude beti. Ez gara herri bezala bizi, ia aurkariak bezala gabil-tza. Ez diogu geure buruari gal-detzen: ea zer egin dezakegu haurrentzat? Eta herria hobetzeko? Bakoitzak bere bizitza egin nahi du, inplikatu gabe, administrazioak dena egin dezala, eta Baztanen kasuan ezin da hala izan. Egia da herriek autonomia gehiago izan beharko luketela proiektuak egiteko ilusio gehiago izateko. Ilusiorik egon ezean, ez da ezer aurrera aterako.

■ **Alkate juradoak desagertuko dira?**

Ez dugu ezer kobratzen lan hau egiteagatik. Nik ez dakit denbora izango dudana, baina bilatuko dut Elizondorentzat daukadana emateko. Garai batean alkate juradoek aguazila izateko eskubidea zeukaten,

euren lana arinagoa izateko; egun ez da lege hori atzera bota, baina bete ere ez da egiten. Jende askorentzat oso nekeza da alkate juradoaren lana egitea beste lan mota bat badauka. Garai batean, juradoek zuten autonomia berreskuratu beharko litzateke irudi hau ez galtzeko.

→ Rakek Goñi

soslaia

1933ko abuztuaren 13an sortu zen, Elizondon. Hiru urte zituela, gurasoekin Frantziara joan behar izan zuen bizitzera. Donostian ere bizi izan zen, baina, azkenik, Elizondo bere herri kulturen itzuli zen.

Margolari ezaguna da Ana Marin. Bere ikasketak Ismael Fidalgoekin hasi zituen, eta 1952an Madrilera joan zen, gehiago ikastera. 1956an bere lehen bakarkako erakusketa jarri zuen, Iruñean. Munduan zehar bidaiatzea gustuko du, batez ere, museoak ikusteko. Van Gogh da gustukoaren duen margolaria.

1975ean eta 1995ean izan zen Elizondoko alkatesa juradoa. Aurten «sasoian» dagoela aipatzen du, herrian esperantza badauka; «lagunduko naute», esaten du une oro.

NAFARROA KAPITAINA ETA Petilla Subkomandantea



Euskarazko izenak
Kentzearekin ez
zuten aski nonbait...



... Euskaraz zegoenaren
itzulpena egin eta
erdarazkoari erantsi behar
izan diotelaz!!



Nafar Kronika

Aitor Arotzena

Baztango instituzioak, krisian

Maite ditut maite zure bazterrak lanbroak izkutatzen dizkidanean Mikel Laboak gisa horretara kantatzen zion Baztani, Euskal Herri osoan, ausartuko nintzateke erratera, miretsiena den eskualdeari. Edozeini galde-tuta, Baztan aratxe txuleta eder, baserritar autentiko, XV. mendeko konkistatzaileen se-haska eta gisako gauzeekin lotuko dute. Gai-nera, auzolana indartsu mantentzen den he-rri bakanetakoa da eta oraindik instituzio be-reziak dituen herria. Baztan herri bakarra da administratiboki, bere alkate, zinegotzi eta Herriko Etxearekin, baina bere barnean ber-tze hamabortz herri ditu, bere alkate, kargu-dun eta buruko minekin.

Bi urtez behin bezala, Eguberri ondoko igandean egin dituzte hamabortz herri horie-tako alkateak aukeratzeko hauteskundeak. Ez da hautaketa handirik egin behar. Bederatzi herritan, aurkeztutako alkategai bakarra izan-nen dute hurrengo bi urteetan. Bertze seieta-n, ez da inor aurkeztu. Urteberri egunean egin-dako bigarren saioan, inor aurkeztuko ez zela ikusiz, sei horietatik erdietan orain arteko al-kateek segitzea erabaki zuten, gogoz kontra izanik ere. Bertze hiruretan ez da alkaterik momentuz. Tartean, Elizondo, Baztango he-rririk handiena, alkaterik gabe gelditu da.

Herrietako alkateek ez dute aurrekontuak eztabaidatzeko aukerarik, eta Balleko Udalak ematen dituen diru pixarren mende daude. Aspaldikoa da beraien arrenkura: asmoak, beharrak eta gauzatu beharreko gauzak, au-nitz; dirua, guti. Honela, ez da harritzekoa al-kate izateko jende guti prest agertzea. Herri-ko bestak antolatu, auzolanerako jendea dei-tu, herritarren kezka aditu, milaka ordu ikusten ez den lanean igaro, eta Baztango He-rriko Etxetik... laguntza murrizta. Baztango ordenantzen aldaketa eskatu dute alkateek, herriek autonomia eta erabaki ahalmen gehiago izan dezaten. Honelako zerbait egi-ten ez bada, instituzio krisia Baztanen neurri larrietara ailegatuko da. Francoren garaian egiten ziren hauteskunde libre bakarrak his-toriara pasatuko dira, inork ez baitu inor izan-nen aukeratzeko.

gure aukerak

MUSIKA

- **Tutera:** Mala Vela taldea Amadeus tabernan gaur, 22:00etan.
- **Tafalla:** Anorexia taldeak Gabal-zeka tabernan joko du gaur, 23:30ean.
- **Iruñea:** Anorexia taldeak Doni-baneko Basandere tabernan joko du bihar, 21:00etan.
- **Burlata:** El Color de la Duda tal-dearen kontzertua asteartean, 21:30ean, Black Rose-n.
- **Zangoza:** Bide Ertzean taldeak kontzertua eskainiko du oste-gunean, 20:30ean, Karmengo entzutegian.
- **Iruñea:** El Color de la Duda tal-deak Gallipot tabernan joko du ostegunean, gaueko hamabie-tatik aurrera.

ANTZERKIA

- **Bera:** Bihar Lezoko Orratz tal-deak Dario Foren *Bozinak, tronpetak eta zalaparta* antzez-lana taularatuko du, 20:00etan, Kultur Etxean.

ZINEMA

- **Bera:** *Asterix eta Obelix Zesarren aurka* marrazki bizidunetako filma eskainiko dute igandean, 17:00etan, Kultur Etxean.

HITZALDIAK

- **Iruñea:** Iturralde elkarteak anto-latuta, Joxemiel Bidador filolo-goak *Nafarroako euskal idazle-ak* izanen ditu mintzagai gaur, 19:30ean, Nabarrerria kultura zentroan.
- **Iruñea:** San Inazio Loiolakoaren eta Nafarroaren arteko harre-mana aztertuko du Jose Maria Rekondo apaizak, asteazkene-an, 20:00etan, Nafarroako Ku-txako hitzaldi aretoan.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** Jose Miguel Corralen margolanak Pintzel galerian

(Abejeras, 6) daude ikusgai, hi-laren 27a arte, jaiegunetan, 10:00etatik 13:30era eta 16:30etik 20:00etara.

IKASTAROAK

- **Iruñea:** Gaur da azken eguna Alde Zaharreko auzo elkarteak antolatzen dituen ikastaroetan izena emateko: eskulanak, yoga, masajea, argazkigintza, txalaparta, pintura, areto dan-tzak, antigimnasia eta graba-tua. Izena emateko deitu 948-212526 telefonora, edo joan Aldapa, 5eko lokaletara, goiz eta arratsalde zabalik.

LEHIAKETAK

- **Iruñea:** Sex Haizegoak Narra-zio Erotiko Laburren VI. Lehia-keta eta Pintura erotikoen IV. lehiaketa antolatu ditu. Bi lehiaketetarako lanak aurkez-teko epea hilaren 31n akituko da. Xehetasunak 948-177299 tlf.an edo www.haizegoa.com gunean.
- **Uharte:** Kultur Etxeko eta Gaz-tetxeko logotipoen lehiaketan parte hartzeko lanak hilaren 31 arte aurkez daitezke. Logotipo bakoitzaren irabazleak 50.000 pezeta eskuratuko ditu. Lehia-

ketaren oinarriak kultur etxean daude, 10:00etatik 14:00etara (San Juan plaza, 1), edo Gazte-txean, 17:00etatik 21:00etara (Zubiarte, 30). Informazioa 948-335016 edo 948-333431 telefonoetan lor daiteke.

BESTELAKOAK

- **Hiriberri:** Bihar, arratsaldeko bostetatik aurrera, jolasak eta karaokea izanen dira herriko Squashean, Urbaran Arakilgo euskara taldeak antolatuta.

JOXE LACALLE



Hara!

Jakina da erretiratuen denbora-pasa atseginena eraikuntza lanei begira egotea dela. «Gaurkoan kasik ez da etorkinik agertu lanera», erran du ezkerrekoak. «Baina porlanezko hormatzarra zutitzea lortu dute», eskuinekoak. Eta horrela pasatzen dute denbora. Baluarte izeneko auditorioa eraikitzeke lana metalezko hesi opakoz inguratu dute. Eta horrela ez dago deus ikusterik! Hori dela eta, leihatilak ireki dituzte hesietan, jubilatuek lanak lasai asko ikus ditzaten. Eta ekimenak izugarritzko arrakasta izan du, une oro baititu ikusleak Baluarte. Izan ere, pertsonak betidanik gustuko izan dute errealtatearen osotasuna zirrikitu batetik ikustea. Eta Baluarteke lanak bezalaxe, nork ez luke gustuko izanen urte jaioberriaren osotasuna leihatilatik ikustea?